



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2020.06.23

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Xabier Balerdi Tolosa

Nerea Letamendia Belloso

Patxi Amantegi Zubiria

Jose M^a Villanueva Telleria

Ez bertaratua:

Begoña Tolosa Mendia

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko Kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Tolosan, bi mila eta hogeiko ekainaren hogeita hiruan, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

1. 2020ko ekainaren 16ko bilkurako akta onartzea.
2. Onartzea Tolosako bide publiko jakin batzuetan ibilgailuen aparkamendua (TAO) kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeko zerbitzu-kontratua, bai eta aparkalekuaren zuzeneko kontrolari (arau-hausteen salaketa barne), bilketari eta instalazioen mantentze-integralari buruzko eremuen geroko kudeaketa ere emateko zerbitzu kontratuaren espedientea eta lizitazioari hasiera ematea.
3. Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko zerbitzu-kontratua arautuko duen esleipenaren kontratazio jardunbidea.
4. Dekretu hauen berri ematea:
- 2020/0857 dekretua: 2020/23 faktura zerrenda.
5. Dekretu hauen berri ematea:



TOLOSAKO
UDALA

2020ko ekainaren 5etik 11ra
(2020/778-2020/845).

1. 2020KO EKAINAREN 16KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2020ko ekainaren 16an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA TOLOSAKO BIDE PUBLIKO JAKIN BATZUETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA (TAO) KONTROLATZEKO, MUGATZEKO ETA ANTOLATZEKO ZERBITZU-KONTRATUA, BAI ETA APARKALEKUAREN ZUZENEKO KONTROLARI (ARAU-HAUSTEEN SALAKETA BARNE), BILKETARI ETA INSTALAZIOEN MANTENTZE-INTEGRALARI BURUZKO EREMUEN GEROKO KUDEAKETA ERE EMATEKO ZERBITZU KONTRATUAREN ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

kontratuaren xedea:	Tolosako bide publiko jakin batzuetan ibilgailuen aparkamendua (TAO) kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeke zerbitzu-kontratua, bai eta aparkalekuaren zuzeneko kontrolari (arau-hausteen salaketa barne), bilketari eta instalazioen mantentze-integralari buruzko eremuen geroko kudeaketa ere.
Unitate sustatzailea:	Hiritarren Segurtasun eta Mugikortasun Saila
Espedientea:	2020SABI0003

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non Udal Idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

II.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Udaltzainburuak 2019ko abenduaren 4an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, Administrazio



TOLOSAKO
UDALA

Baldintza Partikularren Plegua, Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria, eta idazkaritza eta kontuhartzaitzaren txostenak eskatzen zituen jardunbidea burutu ahal izateko.

Bigarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), bere V. Kapituluaren (308. artikulutik aurrera), zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia eta limiteak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna beste batzuen artean.

Hirugarrena.- Txosten berean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak beste batzuen artean.

Laugarrena.- Halaber aipatutako txostenean, SPKLaren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako legeak hau zehazten du bere 28. artikuluan:

Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan. 1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.

III.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, bere 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea osatu behar da. Espedientea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatzen da:

- Saileko buruak egindako kontratazio-proposamena.
- Berezko baliabideak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua.
- Administrazio Baldintza Partikularren Plegua.

Halaber, espedientea osatu beharko da udal kontuhartzailearen txostenarekin.



TOLOSAKO
UDALA

Kontratu honek, administrazio-izaera du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 25.1 artikularen a) atalean xedaturikoarekin bat; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten du:

Zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obraz edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak. Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.

Bestalde, zerbitzu kontratu honetan ondokoa kontuan izan behar da:

Lehena.- Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia**, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 101.1.a). artikulua xedaturikoa aintzat hartuta, **942.398,60 eurokoa** da.

Bigarrena.- Kontratazio honetan **ez da loteetan banaketa aurreikusi**, eta hori justifikatu da espedientean. Hauek dira loteetan banaketa egin ez izateko arrazoiak: kontratuaren xedean jarduketa integrala eskatzen denez, eta kontuan hartuta kontratuaren xede diren jarduera eta lan guztiak espazio fisiko berean garatuko direla, ez da egokia hura loteetan banatzea; izan ere, kontratuaren xedean jasotako hainbat prestazio modu independentean egiteak, zaildu egingo luke hura ikuspegi teknikitik behar bezala gauzatzea. Era berean, koordinazioa beharrezkoa da kontratuko hainbat prestazioren exekuzioan, eta, horiek loteetan banatuz gero, horiek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke, edo, gutxienez, jarduketa eraginkor, gardentasun eta osoaren printzipioekin talka egingo luke.

Hirugarrena.- Zerbitzu kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), bere 19 artikuluan xedatutakoaren arabera, araudi armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan daitezke; kasu honetan, 22. artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen duenez (214.000,00 €), araudi horretara dago lotuta; beraz, **arau armonizatupeko kontratua da hau**. Horrenbestez, lizitazioaren iragarkia, **kontratzailearen profileen argitaratzeaz gain, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian ere argitaratu behar**ko da.

Laugarrena.- SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurtsio berezia tartekatu ahal izango da, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua gainditzen badu; beraz, kasu honetan atalase hori gainditzen duenez, **kontratazioari buruzko errekurtsio bereziaren menpe egongo da lizitazioa**. Horrenbestez, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontratua ezingo da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzailerei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.



TOLOSAKO
UDALA

Bosgarrena.- Bestalde, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren I tituluaren IV. Kapituluaren eta honen I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKL.k bere 86, 87, eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.- Halaber, eta ordainagiriaren ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa:

4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikuluan 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketarako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.

IV.- ESPEDIENTE MOTA

SPKLak bere 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditenteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, arruntak edo ohikoak, presazkoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 119. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: “gerora ezinak edo, herri-onuraren arazoiegatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak diren kontratuen espeditenteak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako, espeditenteak presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio-organismoak eginda eta behar bezala arazoituta”. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: “*hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan...*”.

Kasu honetan, ez da Legearen 119 eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorriz.

V.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Epea: Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, beste urtebete luzatzeko aukerarekin.

Lizitazio prezio orokorra: **558.891,64 euro**, horietatik 461.893,92 euro printzipala eta 96.997,72 euro BEZari (%21) dagozkionak.



TOLOSAKO
UDALA

Balio zenbatetsia: 942.398,60 eurokoa da.

			PPTO. BASE LICITACIÓN	VALOR ESTIMADO	
1 mes sin IVA	1 mes con IVA	1 año sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA
38.491,16	46.574,30	461.893,92	558.891,64	942.398,60	1.117.783,28

Aurrekontuaren _____ partida:

Kontratuaren xede diren lanak, **0400.227.07.133.10** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatu dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomiko aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.

	meses	valor estimado	cuota a pagar (IVA incluido)
2020	5	192.455,80	232.871,52
2021	7	269.438,12	326.020,12
	5	192.455,80	232.871,52
2022	7	269.438,12	326.020,12
primas		18.610,77	22.519,03
TOTAL	24	942.398,60	1.140.302,31

*Aurreikusita dago kontratua 2020ko abuztuaren 1ean hasia
Se estima que el contrato dé comienzo el 1 de agosto de 2020*

VI.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPK Lan jasotako esleipenerako jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“La adjudicación se realizará, ordinariamente, utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación basados en el principio de mejor relación calidad-precio, y utilizando el procedimiento abierto o el procedimiento restringido...”*.

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publizitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala proposamen tekniko eta batik bat ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLaren 156, 157, 158 eta 159 artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki egin behar da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 20. klausulan eta bere I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLaren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura dutenak hain zuzen ere. Kasu honetan, zifra edo ehunekotan baloratu daitezkeen irizpideak ehuneko 55a dira, zifra edo ehunekotan baloratu ezin daitezkeenak, berriz, ehuneko 45.

Azkenik, berme-epari dagokionez, SPK Legearen 111.5, azken idatz-zatian xedaturikoa betez, 6 hilabetetan finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak ez duelako 1.000.000 euroko kopurua gainditzen.



TOLOSAKO
UDALA

VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA

Kontratazio-espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua aztertu dira, SPKLaren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontuan harturik, araututako xedapenekin bat datorrela egiaztatu delarik.

VIII.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eskumena Alkate-Lehendakariaren izango litzateke, baina Tolosako Udalaren kasuan, 2019/1228 Alkatetzaren Dekretuaren bidez, Alkate-Lehendakariak hainbat eskumen eskuordetu zituen Tokiko Gobernu Batzarrean, horien artean 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuen lizitazioak onartzea. Beraz, **Tokiko Gobernu Batzarra da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLaren 190 eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren eta kontuhartzailearen aldeko txostenak eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

Lehena.- Onartzea Tolosako bide publiko jakin batzuetan ibilgailuen aparkamendua (TAO) kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeke zerbitzu-kontratua, bai eta aparkalekuaren zuzeneko kontrolari (arau-hausteen salaketa barne), bilketari eta instalazioen mantentze integralari buruzko eremuen geroko kudeaketa ere emateko zerbitzu kontratuaren espediente eta lizitazioari hasiera ematea.

Bigarrena.- Kontratu honen ezaugarriak onartzea:

Epea: Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, beste urtebete luzatzeko aukerarekin.



TOLOSAKO
UDALA

Lizitazio prezio orokorra: 558.891,64 euro, horietatik 461.893,92 euro printzipala eta 96.997,72 euro BEZari (%21) dagozkionak.

Balio zenbatetsia: 942.398,60 eurokoa da.

			PPTO. BASE LICITACIÓN	VALOR ESTIMADO	
1 mes sin IVA	1 mes con IVA	1 año sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA
38.491,16	46.574,30	461.893,92	558.891,64	942.398,60	1.117.783,28

Aurrekontuaren _____ partida:

Kontratuaren xede diren lanak, **0400.227.07.133.10** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzek eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.

	meses	valor estimado	cuota a pagar (IVA incluido)
2020	5	192.455,80	232.871,52
2021	7	269.438,12	326.020,12
	5	192.455,80	232.871,52
2022	7	269.438,12	326.020,12
primas		18.610,77	22.519,03
TOTAL	24	942.398,60	1.140.302,31

*Aurreikusita dago kontratua 2020ko abuztuaren 1ean hasia
Se estima que el contrato dé comienzo el 1 de agosto de 2020*

Hirugarrena.- Kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua onartzea, azkenengo honetan 7.5 puntu honako paragrafo hau gehituz:

"Urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean alta emanda dauden egoiliarrei dagozkien diru-sarrerak Udalarri ordainduko zaizkio urte bakoitzeko urtarrilaren 31 baino lehen. Urtean zehar alta emanda dauden egoiliarrei dagokien likidazioa hilero bildutako gainerako zenbatekoarekin batera egingo da."

Laugarrena.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea **Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean**, lizitatzailerak beren proposamenak **36 egun naturaleko epean** aurkez ditzaten, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

Bosgarrena.- Erabaki horiek Hiritarren Segurtasun eta Mugikortasun Sailari, Ogasun eta Finantza Administrazio Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondare Azpisailari jakinaraztea.



TOLOSAKO
UDALA

3. TOLOSAKO HIRI-GARRAIO KOLEKTIBOAREN ZERBITZU PUBLIKOA KUDEATZEKO ZERBITZU-KONTRATUA ARAUTUKO DUEN ESLEIPENAREN KONTRATAZIO JARDUNBIDEA.

Gaia mahaia ganean geratu da ISVIAL enpesak ez duelako azterketa ekonomikorik aurkeztu. Hori dela eta, honako hau erabaki da:

Aste honetan bilera egitea ISVIAL enpresarekin, Zoom plataformaren bitartez, honako xedearekin:

- %17ko zeharkako kostuen kontzeptua argitzea.
- Kontratuko prezioen berrazterketa arautzea.

4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

- **2020/0857 DEKRETUA: 2020/23 FAKTURA ZERRENDA.**

Idazkariak 2020/0857 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Zk .: 2020/0857

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatezaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta. 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak. Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2020ko honako faktura-zerrenda hau:

23. zenbakia ·duena, 69.001,44 eurokoa

Zerrenda horietan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau



TOLOSAKO
UDALA

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta faktura horiek ordaintzeko agintzea:

23. zenbakia duena, 69.001,44 eurokoa

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Tolosan, 2020ko ekainaren 15ean

Zinegotzi delegatua

*Nire aurrean,
Idazkaria*

Begoña Tolosa Mendia

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

5. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO EKAINAREN 5ETIK 11RA (2020/778-2020/845).

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2020ko ekainaren 5etik 11ra bitartean (DK 2020/778-2020/845) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei.

Honako hauek dira:

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
778	2020	05/06/2020	HIRIGINTZA	MONTESKUE AUZOA 8KO JABEKIDEEI FATXADA KONPONTZEKO LIZENTZIA EMATEA
779	2020	05/06/2020	HIRIGINTZA	GUDARI 11AN COWORKING (BULEGO PARTEKATUAK) ERABILERA EZARTZEKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO ERREKERIMENDA
780	2020	05/06/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	ESP.: 1141 - ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAN ALTA
781	2020	05/06/2020	HIRIGINTZA	BEOTIBAR 4KO OBRA HANDI ESKAERARI ERREKERIMENDUA



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
782	2020	05/06/2020	HIRIGINTZA	EUSKAL HERRIA PLAZA 3KO LOKALEKO SABAI AIZUNAK KONPONTZEKO OBRA BAIMENA ETA LOKALETAKO ATEAK KONPONTZEKO LANAK LEGEZTATZEKO AGINDUA
783	2020	05/06/2020	HIRIGINTZA	PLAZA BERRIA 4-1B ETXEBIZITZAKO BALKOIAN TOLDO BAT JARTZEKO BAIMEN ESKAERA UKATZEA
784	2020	05/06/2020	UDALTZAINGOA	TAXI BAIMENA 26 ZBKIA DUENAK AUTO ALDAKETAREN ESKAERA ONARTZEA
785	2020	05/06/2020	HIRIGINTZA	PLAZA BERRIA 4-4A ETXEBIZITZAKO BALKOIAN TOLDO BAT JARTZEKO BAIMEN ESKAERA UKATZEA
786	2020	05/06/2020	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO GARAJEAREN BARRUKO HESIAK IREKITZEKO MANDOAK EROSTEA
787	2020	05/06/2020	IDAZKARITZA	2020ERRE0006 KALTE ERREKLAMAZIOA ONARTZEA
788	2020	05/06/2020	KONTUHARTZAILETZA	GAINBALIOEN LIKIDAZIOEN IGORPENA ONARTZEA
789	2020	08/06/2020	IDAZKARITZA	EH PLAZAKO 304 APARTAMANTUAREN BAJA ONARTZEA ETA FIDANTZA ITZULTZEA
790	2020	08/06/2020	IDAZKARITZA	EH PLAZAKO 412 APARTAMANTUAREN BAJA ONARTZEA ETA FIDANTZA ITZULTZEA
791	2020	08/06/2020	IDAZKARITZA	2019ERRE0032 KALTE ERREKLAMAZIOA EZ ONARTZEA
792	2020	08/06/2020	HIRIGINTZA	KALE NAGUSTIK BERDURA PLAZA 4 ZENBAKIRA ELEKTRIZITATE HARTUNEA ERAMATEKO OBRA BAIMENA
793	2020	08/06/2020	IDAZKARITZA	2019ERRE0025 KALTE ERREKLAMAZIOA EZ ONARTZEA
794	2020	08/06/2020	IDAZKARITZA	2020IIBE0001 ESPEDIENTEAN IRAUNGITZE BAJAK ONARTZEA
795	2020	08/06/2020	IDAZKARITZA	ALHONDIGAKO GARAJE BATEN PREZIOA EMATEA. LABAIEN ARABAOLAZA
796	2020	08/06/2020	HIRIGINTZA	KORREO KALEA 25 BEHEKO JARDUERAKO TITULARRARI ERREKERIMENDUA
797	2020	08/06/2020	HIRIGINTZA	PLAZA ZAHARRA 10 ERAIKINEKO TXIMINIA ALDATU, TEILATUA GARBITU ETA HEGALARI EUSTEKO BAIMEN ESKAERA UKATZEA



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
798	2020	09/06/2020	HIRIGINTZA	KALE NAGUSIA 11KO JABEKIDEEI EGIKARITZE AGINDUA BEHEKO SOLAIRUKO HARRIZKO FATXADATIK KENDUTAKO 2 HARRI PLAKAK BERRERAIKITZEKO
799	2020	09/06/2020	HIRIGINTZA	KALE NAGUSIA 11 BEHEKO TRESNA INFORMATIKOAK ETA TELEFONIKOAK KONPONTZEKO JARDUERA LEGEZTATZEKO AGINDUA
800	2020	09/06/2020	HIRIGINTZA	PAPER KALEKO URBANIZAZIO-PROIEKTUA IDAZTEKO ESLEIPENA. KONTRATU TXIKIA.
801	2020	09/06/2020	ENPLEGUA	COWORKING-EN PARTE HARTZEKO BAIMENA EMATEA
802	2020	09/06/2020	HIRIGINTZA	LIZENTZIA UKATZEA, AUZOTXIKIA, 20 GASOLINDEGIAN IBILGAILU ELEKTRIKOAK AZKAR KARGATZEKO PUNTUA INSTALATEKO
803	2020	09/06/2020	AZOKAK	BABARRUN KOFRADIA 2019KO HITZARMENAREN LIKIDAZIOA.
804	2020	09/06/2020	HIRIGINTZA	ALLIRI 13AN ESKATUTAKO TERRAZARI BAJA EMATEA
805	2020	09/06/2020	HIRIGINTZA	KALE NAGUSIA 28KO JABEKIDEEI OBRA AMAIERAKO AGIRIAK AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA
806	2020	09/06/2020	HIRIGINTZA	SOLDADU 2KO EIT TXOSTENAREN AZTERKETA ETA ANALISIAREN EMAITZA
807	2020	09/06/2020	HIRIGINTZA	ERREMENTARI 34KO EIT TXOSTENAREN AZTERKETA ETA ANALISIAREN EMAITZA
808	2020	09/06/2020	IDAZKARITZA	JARDUNEKO IDAZKARIA IZENDATZEA 2020KO EKAINAREN 10TIK 14RA BARNE
809	2020	09/06/2020	HIRIGINTZA	ERREKERIMENDUA BATXILLER ZALDIBIA 1 BEHEAN
810	2020	10/06/2020	HIRIGINTZA	OBRA BAIMENA EMATEA NAFARROA ETORBIDEA 15 BEHEAN
811	2020	10/06/2020	HIRIGINTZA	BATXILLER ZALDIBIA 1EAN DOKUMENTAZIO AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA
812	2020	10/06/2020	IDAZKARITZA	2020ERRE0004 KALTE ERREKLAMAZIOA EZ ONARTZEA.
813	2020	10/06/2020	HIRIGINTZA	OBRA BAIMENA TPF GETINSA EUROESTUDIOS, S.L.
814	2020	10/06/2020	AZOKAK	OSTALARITZA BONO KANPAINA 2020KO DEIALDIA



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
815	2020	10/06/2020	IDAZKARITZA	2020ERRE0001 KALTE ERREKLAMAZIOA EZ ONARTZEA
816	2020	10/06/2020	KONTUHARTZAILTZETA	21. FAKTURA-ZERRENDA ONARTU ETA FAKTURA HORIEN ORDAINKETA AGINTZEA
817	2020	10/06/2020	HIRIGINTZA	TALLERES ARRETXERI TRANSFORMADOREA JARTZEKO BAIMENA UKATZEA
818	2020	10/06/2020	HIRIGINTZA	ZUMALAKARREGI 6 JABEKIDEEI ESKATUTAKO LIZENTZIA UKATZEA
819	2020	10/06/2020	IDAZKARITZA	PLAZA ZAHARRA 2-4KO JABEKIDEEN KUOTAK ORDAINTZEA- GESTIOA
820	2020	10/06/2020	IDAZKARITZA	PLAZA ZAHARRAKO 2-4KO JABEKIDEEN KUOTAK ORDAINTZEA- ATEA KONPONTZEARENA
821	2020	10/06/2020	IDAZKARITZA	PLAZA ZAHARRA 2-4KO JABEKIDEEN KUOTAK ORDAINTZEA- OHIKO KUOTAK
822	2020	10/06/2020		
823	2020	11/06/2020	DIRU-BILKETA	3084 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAREN ERREKURTSOA
824	2020	11/06/2020	HIRIGINTZA	IURRAMENDI BARATZA PARKEKO ESKAERA BERRIAK ITXARON ZERRENDAN SARTZEA
825	2020	11/06/2020	DIRU-BILKETA	2053 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAREN ERREKURTSOA
826	2020	11/06/2020	DIRU-BILKETA	2841 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAREN ERREKURTSOA
827	2020	11/06/2020	DIRU-BILKETA	19923 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAREN ERREKURTSOA
828	2020	11/06/2020	DIRU-BILKETA	21501 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAREN ERREKURTSOA
829	2020	11/06/2020	DIRU-BILKETA	23334 PREMIMAMENDU ESPEDIENTEAREN ERREKURTSOA
830	2020	11/06/2020	DIRU-BILKETA	26886 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAREN ERREKURTSOA
831	2020	11/06/2020	DIRU-BILKETA	27348 PREMIMAMENDU ESPEDIENTEAREN ERREKURTSOA
832	2020	11/06/2020	DIRU-BILKETA	27433 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAREN ERREKURTSOA
833	2020	11/06/2020	DIRU-BILKETA	27478 PREMIMAMENDU ESPEDIENTEAREN ERREKURTSOA



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
834	2020	11/06/2020	DIRU-BILKETA	27528 PREMIMAMENDU ESPEDIENTEAREN ERREKURTSOA
835	2020	11/06/2020	PERTSONALA	MUSIKA ESKOLAKO ESKAERA ONARTZEA (PERKUSIO KLASEAK)
836	2020	11/06/2020	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO 46 (-!) APARKALEKUAREN ERABILERA LAGATZEA
837	2020	11/06/2020	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO 33 (-!) APARKALEKUAREN ERABILERA LAGATZEA
838	2020	11/06/2020	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO 41 (-1) APARKALEKUAREN ERABILERA LAGATZEA
839	2020	11/06/2020	PERTSONALA	KONTUHARTZAILE TEKNIKARI LANPOSTUAREN OINARRIAK ONARTZEA
840	2020	11/06/2020	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO 42 (-2) APARKALEKUAREN ERABILERA LAGATZEA
841	2020	11/06/2020	HIRIGINTZA	AMAROTZEKO AUZOETXE INGURUA BERRANTOLATZEKO PARTE HARTZE PROZESUKO AMAIERAKO DOKUMENTUA ONARTZEA
842	2020	11/06/2020	DIRU-BILKETA	15968 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAREN EBAZPENA.
843	2020	11/06/2020	DIRU-BILKETA	15974 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAREN EBAZPENA.
844	2020	11/06/2020	DIRU-BILKETA	17519 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAREN EBAZPENA.
845	2020	11/06/2020	DIRU-BILKETA	15278 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAREN EBAZPENA.

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaituzat jo dute 13:00ean.

ALKATEA

IDAZKARIA